## KUDEAKETA-AGINDUAREN ONARPENAREN ERABAKIA

Lehena. Debabarrena Eskualdeko eta BADESA SAren arteko esparru-hitzarmena onartzea, Mankomunitatearen eskumenekoak diren (estatutuen arabera) eta sozietateak eman behar dituen zerbitzu publikoak kudeatzeko agindua zehazteko helburuarekin. Esparru-hitzarmenak ondorengo azalpen-zatiak eta klausulak biltzen ditu.

*Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea 1982ko maiatzaren 29an eratu zen.*

*Mankomunitatearen estatutuen 1., 2. eta 3. artikuluetan, honako hau xedatzen da:*

*1. artikulua*
*Eibar, Elgoibar, Mendaro, Soraluze, Deba, Mutriku, Ermua eta Mallabia udalerriek (lehenengo seiak Gipuzkoako Lurralde Historikokoak dira, eta azken biak, aldiz, Bizkaiko Lurralde Historikokoak) borondatezko mankomunitatea osatu dute, hiri-hondakin solidoak bildu, garraiatu eta errausteko zerbitzuak, hondakin solido ez-organikoen tratamendua, bide-garbiketa eta mankomunitateko txakurtegi-zerbitzua modu elkartuan kudeatu, antolatu eta emateko.*

*2. artikulua*
*Halaber, Mankomunitatearen xedea da Toki Administrazioaren eskumenekoak diren eskualdeko beste edozein zerbitzu eta ekimen ematea, baldin eta komunitatea osatzen duten udalek horiek ezarri eta ustiatzea erabakitzen badute, beren ekimenez edo Mankomunitateko Batzar Orokorrak proposatuta.*

*Nolanahi ere, Mankomunitateari ezin izango*

## ACUERDO DE APROBACIÓN DE LA ENCOMIENDA DE GESTIÓN

Primero. Aprobar el convenio marco entre la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y BADESA, S.A., para la definición de la encomienda de gestión de los servicios públicos a prestar por la sociedad, competencia de la Mancomunidad, según sus estatutos, que contiene los siguientes exponendos y cláusulas.

*La Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, se constituyó con fecha 29 de mayo de 1982.*

*Disponen sus estatutos, en sus artículos 1, 2 y 3, lo siguiente:*

*Artículo 1*
*Los municipios de Eibar, Elgoibar, Mendaro, Placencia de las Armas, Deba, Mutriku, Ermua y Mallabia, los seis primeros del Territorio Histórico de Gipuzkoa y los dos últimos del Territorio Histórico de Bizkaia, constituyen una mancomunidad voluntaria para la gestión, organización y prestación en forma asociada de los servicios de recogida, transporte e incineración de residuos sólidos urbanos y tratamiento de residuos sólidos inorgánicos, limpieza viaria y perrera mancomunada.*

*Artículo 2*
*También son fines de la Mancomunidad, la prestación de cualesquiera otros servicios e iniciativas de ámbito comarcal, competencia de la Administración Local, siempre que su implantación y explotación se acuerde por los Municipios que integran la mancomunidad, a iniciativa propia o a propuesta de la Junta General de la Mancomunidad.*
*En todo caso, se excluye la posibilidad de*

*zaizkio esleitu mankomunitatea osatzen duen udal bakoitzak dituen udal-eskumenak.*

*atribuir a la Mancomunidad la totalidad de las competencias municipales propias de cada Ayuntamiento que integra la Mancomunidad.*

*3. artikulua*

*Toki Entitate publikoa den aldetik, Mankomunitate honek nortasun juridikoa eta xedeak betetzeko gaitasun osoa ditu. Horrenbestez, legez aitortutako eskumenak erabiliko ditu mankomunitatea osatzen duten udalei dagokien lurralde-esparruan, beste entitate publiko batzuekin hitzarmenak ezartzeko aukerari kalte egin gabe.*

*Artículo 3*

*Esta Mancomunidad, como Entidad Local de carácter público, tiene personalidad jurídica y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines, ejerciendo las competencias reconocidas legalmente en el ámbito territorial que se corresponde con el de los términos municipales de los Municipios que en ella se integran, sin perjuicio de los convenios que pueda establecer con otras entidades públicas.*

*1.- Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea, borondatezko elkarte-formula den heinean, tresna baliagarria da erakundeko bazkideak diren Debabarrena eskualdeko udalek, beren eskumenen barruan jardunez, erakundeari esleitutako tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko ahaleginak batera ditzaten.*

*1.- La Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, como fórmula asociativa de carácter voluntario, sirve para que los ayuntamientos de la comarca del Bajo Deba, socios de la Entidad, desde sus respectivas competencias, unifiquen sus esfuerzos en la gestión de servicios públicos locales, atribuidos a esta institución.*

*2.- Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak, bere eskumenak betez eta bere estatutuen arabera, aginduta zituen zerbitzu publikoak merkataritza-sozietate bat sortzearen bidez kudeatzea erabaki zuen. Sozietate horren araubidea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85 TER artikuluan araututa dago. Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Batzar Orokorraren Erabaki bidez, BADESA eratzea onartu zen, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak kudeatu beharreko zerbitzuak zuzenean kudeatzeko modu gisa, eta, horri jarraituz, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen beraren xede diren zerbitzuak daude jasota sozietatearen xede sozialean. BADESA eratzeko, bidezko udalekotze-espedientea sortu zen, eta, Toki*

*2.- En ejercicio de sus competencias, según sus estatutos, la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, acordó gestionar los servicios públicos encomendados mediante la creación de una sociedad mercantil, cuyo régimen se regula en el artículo 85 TER de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local (LBRL). Mediante Acuerdo de la Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, se aprobó la constitución de BADESA, como forma de gestión directa de los servicios cuya competencia de gestión corresponde a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y, en su virtud, se recoge en el objeto social de la sociedad, los servicios que son, a su vez, objeto de la propia Mancomunidad Comarcal de Debabarrena. Para la constitución de BADESA, se instituyó*

*Araubidearen Testu Bateginaren 97. artikuluan xedatutakoaren babesean, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen Batzar Orokorrak jarduera ekonomikoak egitea baimendu zuen eta jarduera horren alderdi sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioei buruzko memoria onartu zen.*

*Halaber, sozietatearen estatutuak aldatzeko eta bertan Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen baliabide propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaera jasotzeko proposamena egin zaio BADESAren Batzar Orokorrari. Ildo horretan, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 24.6 eta 4.1 n) artikuluen araubidearen aplikagarritasuna berretsiko da, eta sozietatearen estatutuetara helaraziko da izaera hori.*

*3.- Horrela, beraz, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen baliabide propio bat da BADESA, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85-2-A d) artikuluaren aurreikuspenaren babesean eratu da Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen partaidetza baino ez duen pertsona bakarreko erakunde gisa. Tokiko sozietate publikoa denez gero, BADESA, izaera juridiko eta pribatuko merkataritza-erakundea izanik ere, behartuta dago, aginduzkoa denez, bere kudeaketan toki-araubideari buruzko legeriaren arabera aginduzkoak zaizkion zuzenbide publikoko eremuak aplikatzera, honako arlo hauetan: kontratazio publikoa, langileak hautatzeko arauak, ekonomia, aurrekontu eta kontabilitateko araubidea eta legeriak kontratu hau sinatzen den unean edo etorkizunean zehazten dituen guztiak.*

*BADESA, halaber, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen zerbitzu teknikoa da, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko*

*el correspondiente expediente de municipalización, y al amparo de lo dispuesto en el artículo 97 del TRRL, se autorizó por la Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, el ejercicio de actividades económicas, aprobándose la memoria relativa a los aspectos sociales, jurídicos, técnicos y financieros de dicha actividad.*

*Asimismo, se ha propuesto a la Junta General de la sociedad BADESA, una propuesta de modificación de los estatutos de la sociedad, para recoger su naturaleza, como medio propio y servicio técnico de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, confirmando la aplicabilidad del régimen de los artículos 24.6 y 4.1 n) de la Ley 30/2007, de Contratos del Sector Público, y trasladando a los Estatutos Sociales dicho carácter.*

*3.-En consecuencia, BADESA es un medio propio de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, y se ha constituido al amparo de la previsión del artículo 85-2-A d) de la LBRL como una entidad unipersonal participada exclusivamente por la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena. Como consecuencia de su naturaleza de sociedad pública local, BADESA, aun y a pesar de ser una entidad mercantil de naturaleza jurídico privada, se obliga a aplicar a su gestión como por otro lado es preceptivo, aquellos ámbitos del derecho público que conforme a la legislación de régimen local le resultan preceptivos, en materias como la contratación pública, las normas de selección de personal, el régimen económico presupuestario de contabilidad y cualesquiera otras que determine la legislación en el momento de la firma del presente contrato o en el futuro.*

*Asimismo BADESA constituye el servicio técnico de de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, conforme se define en el artículo*

*30/2007 Legearen 24.6 artikuluan zehaztutakoari jarraituz.*

*4.- Esparru-hitzarmen honen helburua honako hau da: Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen eta BADESA SAren arteko harremanak konfiguratzea, azken horrek, lehenaren tresna eta baliabide propio gisa, xede sozialari lotutako helburuak bete ditzan (harreman hori eraginpean hartzen duten alderdietan).*

*Esparru-hitzarmen honetan, tipologia eta izaera desberdinarekiko errespetuan oinarrituta zehazten dira bi erakunde horien arteko harremanak. Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearentzat, bere baliabide propioaren jardunak zorrotz kontrolatu eta ikuskatzea ahalbidetuko duen, zerbitzuaren prestazioari lotutako ondarearen babesa ziurtatuko duen eta sozietateak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearekin dituen betebehar zehatz eta nagusiak zehaztuko dituen tresna da. Halaber, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak bere sozietatearekin dituen konpromisoak ezarriko ditu ikuspegi ekonomiko eta finantzario batetik, eta, oro har, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak bere sozietatearekin (eta alderantziz) dituen betebeharrak zehaztuko ditu.*

*Sozietate publikoarentzat, berriz, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen mandatuari eta aginduari lotutako kudeaketaren xedea eta norainokoa ezartzen du kontratu honek; nolanahi ere, sozietateari agindutako zerbitzuak egiteko beharrezkoak diren inbertsioak egikaritzeko behar den finantzaketa lortzea ziurtatuko dion bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa oinarritzeko esparru juridikoa finkatzea ahalbidetuko du.*

*24.6 de la Ley 30/2007 de 30 de octubre de Contratos del Sector Público.*

*4.- El objetivo del presente convenio marco es la configuración de las relaciones entre la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y BADESA para el cumplimiento por esta última, como instrumento y medio propio de aquélla, de los fines determinados en su objeto social, en los diferentes aspectos que deben afectar a dicha relación.*

*La definición de las relaciones entre ambas entidades, en el presente convenio marco, viene presidida por el respeto de la diferente tipología y naturaleza de las mismas. Para la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena constituye el instrumento que permitirá el ejercicio de un estrecho control y fiscalización sobre las actuaciones de su medio propio, asegurará la protección del patrimonio afecto a la prestación del servicio y especificará las obligaciones concretas y principales de la sociedad para con la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena. Asimismo, establecerá los compromisos de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena con su sociedad, desde un punto de vista económico-financiero, y concretará, en general, las obligaciones de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena para con su sociedad y viceversa.*

*Para la sociedad pública, el presente contrato viene a establecer el objeto y alcance de la gestión que constituye el mandato y encomienda de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, sin perjuicio de permitir la determinación del marco jurídico sobre el que sustentar la viabilidad económica-financiera que asegure a la Sociedad, la obtención de la financiación necesaria para la ejecución de las inversiones necesarias para la prestación de los servicios encomendados.*

*5.- Esparru-hitzarmen honen edukiek Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak bere baliabide propio eta zerbitzu teknikoarentzat zehaztutako aldebakarreko instrukzioak garatzen dituzte. Instrukzio horiek nahitaez bete beharrekoak dira BADESArentzat, eta elkarrekiko eskubide eta betebeharrak dira hitzarmena izenpetzen duten alderdientzat. Ondorengo aldaketa bat egitean, zerbitzuaren prestazioari lotutako kontratuak betetzen direla ziurtatzeko bertan jasotako eskubide eta betebeharrak baliatu dituzten hirugarrenak hartu beharko dira kontuan.*

*Arestian azaldutako aurrekariei jarraituz, bi alderdiek esparru-hitzarmen hau sinatu dute honako klausula hauen arabera:*

***KLAUSULAK***

***LEHEN ATALA.- KONTRATUAREN XEDEA ETA INDARRALDIA***

***LEHENA.- XEDEA***

*BADESA sozietateak egin beharreko prestazioak arautzen ditu esparru-hitzarmen honek, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen bitarteko propioa eta zerbitzu teknikoa den heinean, eta tokiko zerbitzu publikoak emateko eratu da, sozietatearen xedean deskribatutakoaren arabera. Esparru-hitzarmenak, halaber, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen eta BADESAren arteko harremanetik sortutako eskubide eta betebeharrak arautzen ditu.*

*Aurrekoari jarraikiz, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak BADESA sozietateari agindu dio zerbitzuen prestazioa bere izenean eta sozietatearen kontura egiteko mandatua, eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak finkatutako*

*5.- Los contenidos del presente convenio marco desarrollan las instrucciones unilaterales de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena para su medio propio y servicio técnico, que son de ejecución obligatoria para BADESA, y constituyen entre las partes que lo suscriben, derechos y obligaciones recíprocos. Su modificación posterior deberá considerar a terceros, que pueden haberse servido de los derechos y obligaciones en él contenidos para asegurar el cumplimiento de los contratos vinculados con la prestación del servicio.*

*De acuerdo con los antecedentes anteriores, ambas partes otorgan el presente convenio marco con arreglo a las siguientes*

***CLAUSULAS***

***SECCIÓN PRIMERA.- OBJETO Y PLAZO DE VIGENCIA DEL CONTRATO***

***PRIMERA.- OBJETO***

*El presente convenio marco regula las prestaciones a realizar por la sociedad BADESA, en su condición de medio propio y servicio técnico de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena constituido para la prestación de servicios públicos locales, en los términos descritos en su objeto. El convenio marco regula asimismo los derechos y obligaciones nacidos de la relación entre la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y BADESA.*

*En virtud de lo anterior, la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena encomienda a la sociedad BADESA, quien acepta, el encargo de realizar en su propio nombre y por cuenta de aquél la prestación de servicios, que se desarrollará en la forma y condiciones*

*moduan eta baldintzetan beteko da, hitzarmen honen eta ondorengo aginduei jarraikiz.*

*Bereziki, BADESAk bere gain hartzen duen kudeaketa-aginduak honako zerbitzu hauetarako beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduera guztiak bilduko ditu:*

- ⇨ *Hondakinak biltzeko zerbitzua, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko bazkide diren udalerrien eremuan; gaikako bilketa mota guztiak biltzen ditu.*
- ⇨ *Bide-garbiketako zerbitzua, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko bazkide diren udalerrien eremuan.*
- ⇨ *Tailer-zerbitzua.*
- ⇨ *Aholkularitza ekonomiko finantzarioko, teknikoko eta kudeaketa-aholkularitzako zerbitzuak eta, oro har, laguntza Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearentzat, bere xedea eta estatutu-helburuak bete ditzan, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearentzako laguntza teknikoa barnean hartuta (barneko baliabideekin edo kanpoko baliabideak kontratatzearen bidez).*
- ⇨ *Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen estatutuetan ezarrita dauden eta BADESAk baliabide propio eta zuzeneko kudeatzaile gisa eta Esparru Akordioan eta agindu berezietan agertzen diren baldintzetan bete ditzakeen funtzioak.*
- ⇨ *Kudeaketa-aginduaren eta estatutuen xedea betetzeko egin beharreko jardunak, eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak bere eskumeneko*

*determinadas por la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena conforme al presente Convenio y encomiendas ulteriores.*

*En particular, la encomienda de gestión que asume BADESA comprenderá el conjunto de actividades necesarias o convenientes para:*

- ⇨ *Servicio de recogida de residuos en el ámbito de los municipios socios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, que incluye la totalidad de las recogidas selectivas.*
- ⇨ *Servicio de limpieza viaria, en el ámbito de los municipios socios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.*
- ⇨ *Servicio de taller.*
- ⇨ *Servicios de asesoramiento económico financiero, técnico, de gestión y, en general, apoyo a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena para que ésta pueda cumplir su objeto y fines estatutarios, que pudiera comprender la asistencia técnica a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, con los medios internos que dispone o mediante la contratación de medios externos.*
- ⇨ *Aquellas funciones que vengan establecidas en los estatutos de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, que puedan ser desempeñadas por BADESA, en su condición de medio propio y gestor directo, en las condiciones que figuren en el Acuerdo Marco y en las encomiendas específicas.*
- ⇨ *Aquellas actuaciones que resulte necesario realizar para el cumplimiento del objeto de la encomienda de gestión y de sus propios estatutos, así como*

*zerbitzuen eremuan espresuki agintzen dizkionak.*

- ⇨ *BADESAk eskuratutako eta haren eskumeneko zerbitzuen prestazioari lotutako ondasun eta eskubideak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen esku jartzea.*

*Aurreko jardunetako bakoitzak hitzarmen espezifiko bat izango du, eta kudeaketa-aginduaren baldintzak finkatuko dira bertan (gutxieneko edukia esparru-hitzarmen honen ondorengo klausuletan araututa dago). Nolanahi ere, hitzarmen espezifikoek ezin izango diete aurka egin esparru-hitzarmen honen xedapenei.*

*Lehen klausula honetan arestian aurreikusitako guztia galarazi gabe, bi alderdiek onartzen dute Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea behartuta egon daitekeela zerbitzua emateko baldintzak aldatzera. Kasu horretan, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak zerbitzua baldintza berri horietan emateko eskatu ahal izango dio BADESAri, betiere (i) zerbitzua emateko baldintza berriak dokumentuetan gauzatzen badira; (ii) esparru-hitzarmen honetan xedatutakoaren aurkakoak ez badira, eta (iii) nolanahi ere, hurrengo klausulan xedatutakoa betetzen bada.*

*Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak espresuki uko egiten dio Sozietatearen aurkako ekintzak egiteari Sozietateak, jasotako mandatua betez, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen kontura egindako jardunengatik.*

*aquellas que, expresamente le encomiende la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, en el ámbito de los servicios de su competencia.*

- ⇨ *La puesta a disposición de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, de bienes y derechos adquiridos por BADESA, relacionados con la prestación de los servicios de su competencia.*

*Cada una de las actuaciones anteriores será objeto de un convenio específico en el que se determinan las condiciones de la encomienda de gestión, cuyo contenido mínimo se regula en cláusulas posteriores de este convenio marco. En cualquier caso, los Convenios específicos no podrán contravenir las disposiciones de este convenio marco.*

*Sin perjuicio de todo lo anteriormente previsto en esta cláusula primera, ambas partes reconocen que la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena puede verse obligado a alterar las condiciones de prestación del servicio. En este caso, la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena podrá solicitar a BADESA que preste el servicio en esas nuevas condiciones, siempre que (i) se materialicen documentalmente las nuevas condiciones de prestación del servicio; (ii) no sean contrarias o se opongan a lo dispuesto en este convenio marco y (iii) se observe, en todo caso, lo dispuesto en la cláusula siguiente.*

*La Mancomunidad Comarcal de Debabarrena renuncia expresamente al ejercicio de acciones frente a la Sociedad por razón de las actuaciones que ésta, en cumplimiento del encargo recibido, hubiera llevado a cabo por cuenta de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.*

***BIGARRENA.- SOZIETATEAREN PRESTAZIOAK ALDATZEA***

*Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak beste hitzarmen batzuk izenpetu izanagatik edo zerbitzua emateko baldintzak aldatu izanagatik esparru-hitzarmen honi jarraituz sozietateari dagozkion prestazioak aldatzea erabakitzen duenean, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak onartu aurretik jakinaraziko dizkio proposatutako aldaketak BADESAko Administrazio Kontseiluari, aldaketa horien aplikazio automatikoa aurreikusten denean izan ezik.*

*Nolanahi ere, BADESAk ez du egingo bere xede sozialean sartuta ez dagoen prestaziorik.*

*Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak proposatutako aldaketak jakinarazi ondoren, BADESAko Administrazio Kontseiluak, hamabost eguneko epean, planteatutako aldaketak balioesteko txosten bat egingo du eta aldaketak onartzeko aukerari eta onarpenaren ondorioei buruzko azterketa bat egingo du ikuspegi hirukoitz batetik abiatuta: ikuspegi juridikoa, ekonomikoa eta kudeaketari lotutakoa. Txosten horrek agerian utziko ditu, halaber, aldaketa horiek sozietateak hirugarrenekin eta, bereziki, erakunde finantzatzaileekin bere gain hartutako kontratu-betebeharretan izan ditzaketen ondorioak, eta, hala badagokio, sozietateak aldaketen ondorioz ordaindu beharreko zenbatekoak ebaluatuko ditu (gainkostua, finantzaketa gehigarria eta dagoen finantzaketaren mugaeguna edo amortizazio aurreratua).*

*Administrazio Kontseiluak adierazitako epean igorriko dio txostena Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari, aldaketa bat onartu aurretik erabaki-organoek kontuan*

***SEGUNDA.- MODIFICACIÓN DE LAS PRESTACIONES DE LA SOCIEDAD***

*Cuando la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena acuerde la modificación de las prestaciones a que viene obligada la sociedad en virtud del presente convenio marco, por la suscripción de nuevos convenios o por la variación de las condiciones de prestación del servicio, la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena notificará al Consejo de Administración de BADESA, las modificaciones propuestas con carácter previo a su aprobación, salvo en los supuestos en los que se prevea su aplicación automática.*

*En cualquier caso, BADESA no realizará prestaciones que no se incluyan en su objeto social.*

*Una vez notificadas las modificaciones propuestas por parte de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, en el plazo de quince días, el Consejo de Administración de BADESA elaborará un informe en el que valorará las modificaciones que se planteen, y hará un análisis de la posibilidad y consecuencias de su aprobación, desde una triple perspectiva, jurídica, económica y de gestión. Dicho informe pondrá de relieve, asimismo, las repercusiones que dichas modificaciones pueden tener para las obligaciones contractuales asumidas por la sociedad con terceros y, en particular, con las entidades financiadoras, evaluando, en su caso, las cantidades que la sociedad deberá abonar como consecuencia de dicha modificación (sobrecoste, financiación adicional, vencimiento o amortización anticipada de la financiación existente).*

*El Consejo de Administración remitirá el informe en el plazo señalado a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena a efectos de que pueda ser tenido en cuenta*

*hartu ahal izan dezaten.*

***HIRUGARRENA.- LURRALDE-EREMUA***

*BADESAk Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko bazkide diren udalerriek hartzen duten lurralde osoan emango du bere eskumeneko zerbitzua.*

*Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean gertatzen den lurralde-aldaketa oro udalerri bazkideek adostu beharko dute eta merkataritza-sozietateko Administrazio Kontseiluari jakinaraziko zaio onartu aurretik. Sozietateak txosten bat egingo du hamabost eguneko epean, eta aldaketak onartzeko aukera eta onarpenaren ondorioak aztertuko ditu bertan, ikuspegi hirukoitz batetik abiatuta: ikuspegi juridikoa, ekonomikoa eta kudeaketari lotutakoa.*

*Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen lurralde-eremuan gertatzen den aldaketa onartuko duen Batzar Orokorrerako deialdiarekin batera, Sozietateko Administrazio Kontseiluak onartutako txostena igorriko da.*

***LAUGARRENA.- EPEA***

*Kontratu honek 30 urteko indarraldia izango du, 2016ko apiriletik aurrera zenbatzen hasita.*

*Esparru-hitzarmen hau bi erakundeek bidezkotzat hartzen duten aurretiaz lortzen duten esanbidezko akordio bidez baino ez da luzatuko, akordio horretan finkatzen diren epe eta baldintzetan.*

***BIGARREN ATALA.- BADESA SOZIETATEAREN IZAERA JURIDIKOAREN ONDORIOZKO BETEBEHARRAK***

*por los órganos de decisión de forma previa a la aprobación de la modificación de que se trate.*

***TERCERA.- ÁMBITO TERRITORIAL***

*BADESA prestará el servicio de su competencia a todo el territorio que abarquen los municipios socios de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.*

*Cualquier variación territorial que se produzca en la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, y que deberá ser fruto del acuerdo de los ayuntamientos socios, será notificada, con carácter previo a su aprobación, al Consejo de Administración de la mercantil, quien elaborará en el plazo de quince días un informe en el que evaluará la posibilidad y consecuencias de su aprobación, desde una triple perspectiva jurídica, económica y de gestión.*

*La convocatoria de la Junta General en la que se someta a aprobación la variación en el ámbito territorial de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena acompañará el informe aprobado por el Consejo de Administración de la Sociedad.*

***CUARTA.- PLAZO***

*El plazo de vigencia del presente contrato será de 30 años a contar desde abril de 2016.*

*El presente convenio marco solo se prorrogará mediante acuerdo expreso de ambas entidades con la antelación que se estime oportuna, en los plazos y condiciones que se fijen en el señalado acuerdo.*

***SECCIÓN SEGUNDA.- OBLIGACIONES DIMANANTES DE LA NATURALEZA JURÍDICA DE LA SOCIEDAD BADESA***

***BOSGARRENA.- BALIABIDE PROPIOAREN ETA ZERBITZU TEKNIKOAREN IZAERAREN ONDORIOZKO BETEBEHARRAK***

*BADESAk honako betebehar hauek hartzen ditu bere gain, bere izenean eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen kontura, betiere Esparru Hitzarmen honetan itundutakoaren eta geroago formalizatuko diren hitzarmen espezifikoen esparruan:*

- ⇨ *Kudeaketa-agindu honen xede diren zerbitzu publikoak lehen klausulari jarraituz ematea.*
- ⇨ *Kudeaketa gauzatzean, kudeaketa-helburua betetzen saiatzea eta aplikatu beharreko araudiari jarraitzea.*
- ⇨ *Zerbitzua kudeatzean, legeria zorrotz betetzea (ingurumenaren arlokoa bereziki).*
- ⇨ *Zerbitzua jasotzen dutenek arlo horretako legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzen dituztela zaintzea.*
- ⇨ *Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari zerbitzuaren prestazioan agertzen diren gorabehera guztien berri lehenbailehen ematea.*
- ⇨ *Presidentearen eta presidenteordearen karguak betetzen dituzten pertsonei, Gobernu Batzordeari, idazkari kontu-hartzailearen kargua betetzen duen pertsonari eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen beste edozein organori sozietatearen xedeari lotuta agintzen zaizkien eginkizun guztietan laguntzea.*

***HIRUGARREN ATALA.- ONDASUNEN ONDARE-ERREGIMENA***

***QUINTA.- OBLIGACIONES DERIVADAS CARÁCTER DE MEDIO PROPIO Y SERVICIO TÉCNICO***

*BADESA asume en nombre propio y por cuenta de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, y siempre dentro del marco de lo pactado en este Convenio Marco y de los Convenios específicos ulteriores que se formalicen, las siguientes obligaciones:*

- ⇨ *Prestar los servicios públicos objeto de esta encomienda conforme a la cláusula primera.*
- ⇨ *Desarrollar la gestión buscando dar cumplimiento a los objetivos de gestión y conforme con la normativa de aplicación.*
- ⇨ *Desarrollar la gestión del servicio con escrupuloso cumplimiento de la legislación, en especial la ambiental.*
- ⇨ *Velará por el cumplimiento por los receptores del servicio de las obligaciones legales y reglamentarias en la materia.*
- ⇨ *Dar cuenta a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena de forma inmediata de cuantas incidencias se aprecien en la prestación del servicio.*
- ⇨ *Asistir a la persona que ejerza la Presidencia y Vicepresidencia, a la Comisión de Gobierno, a la persona que ejerza de Secretario Interventor, y a cualesquiera otros órganos de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena en cuantos cometidos les sean encomendados que se relacionen con el objeto social de la sociedad.*

***SECCIÓN TERCERA.- RÉGIMEN PATRIMONIAL DE LOS BIENES***

***SEIGARRENA.- ZERBITZU PUBLIKOARI LOTUTAKO ONDASUNAK***

*Esparru-hitzarmen honen lehen klausulan xedatutakoari jarraituz BADESAri agindutako inbertsioak, zerbitzu publikoari lotuta dauden eta hitzarmen honen arabera araututako kudeaketa-aginduaren ondoriozkoak diren neurrian, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen jabari publikoaren zati izango dira abiarazten direnetik eta une bakoitzean indarrean dagoen legerian hori ezartzen den bitartean.*

*Era berean, zerbitzua emateko ezinbestekoak diren neurrian, ondasun horien erabilera pribatibo esklusiboa sozietateari eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari atxikiko zaio, zerbitzua laugarren estipulazioan aurreikusitako epemuga bete arte emateko.*

***SEXTA.- DE LOS BIENES AFECTOS AL SERVICIO PÚBLICO***

*Las inversiones de cuya ejecución, por sí, se hubiese encargado BADESA en virtud de lo dispuesto en la clausula primera del presente convenio marco, en la medida en que están afectas al servicio público, y resultan de la encomienda de gestión regulada en virtud del presente convenio, formarán parte del dominio público de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, desde su puesta en servicio y en tanto así se establezca en la legislación vigente en cada momento.*

*Asimismo, en la medida en que resultan imprescindibles para la prestación del servicio, el uso privativo exclusivo de dichos bienes se adscribe a la sociedad y a la propia Mancomunidad Comarcal de Debabarrena para la prestación del servicio hasta el vencimiento del plazo previsto en la estipulación cuarta.*

***ZAZPIGARRENA.- DESJABETZEKO AHALMENAK***

*Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak onuradun gisa zerbitzua emateko beharrezkoak diren lurzoruak edo beste ondasun batzuk desjabetzeko hirugarren administrazioen laguntza eskatzen duenean, BADESAk bere gain hartuko du desjabetzeko prozeduran Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari ezartzen zaizkion legezko betebehar guztiak betetzeko konpromisoa.*

*Hala badagokio, desjabetzeko prozesuaren amaierak desjabetutako ondasunak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen jabari publikoan txertatzea ekarriko du inplizituki.*

***SÉPTIMA.- FACULTADES EXPROPIATORIAS***

*Cuando la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena solicite en calidad de beneficiario el auxilio de terceras administraciones para la expropiación en su favor de los suelos u otros bienes necesarios para la prestación del servicio, BADESA asumirá el cumplimiento de cuantas obligaciones legales se establezcan a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena en el procedimiento expropiatorio.*

*En su caso, la culminación del proceso expropiatorio llevará implícita la integración de los bienes expropiados en el dominio público de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.*

***ZORTZIGARRENA.- ONDARE-ARAUBIDEAREN PUBLIKOTASUNA***

*Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 36.1 artikulua aplikatuta, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak dagozkion erregistroetan inskribatu behar ditu bere ondareko ondasun eta eskubideak, jabari publikokoak zein ondarezkoak eta inskribatzeko modukoak, baita horiei buruzko egintza eta kontratu guztiak ere erregistro horiek balia baditzakete, eta sozietateak ere betebehar bera hartuko du bere gain.*

*Era berean, esparru-hitzarmen honi jarraituz sozietateak eraikitako azpiegitura bat zerbitzuan jartzen denean, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eta sozietateak berak iragarki bat argitaratuko dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta bertan zehaztuko dituzte Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen jabari publikoan biltzen diren ondasunak eta atxikipena, baita esanguratsu iritzitako beste edozein zirkunstantzia ere.*

***OCTAVA.- PUBLICIDAD DEL RÉGIMEN PATRIMONIAL***

*En aplicación del art. 36.1 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena debe inscribir en los correspondientes registros los bienes y derechos de su patrimonio, ya sean demaniales o patrimoniales, que sean susceptibles de inscripción, así como todos los actos y contratos referidos a ellos que puedan tener acceso a dichos registros, y la sociedad adopta idéntica obligación.*

*Asimismo, cuando se proceda a la puesta en servicio de una infraestructura construida por la sociedad en virtud del presente convenio marco, la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y la sociedad publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa un anuncio en el que se determinarán los bienes que se integran en el dominio público de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y su adscripción, así como cualesquiera otras circunstancias que se consideren relevantes.*

***BEDERATZIGARRENA.- INBENTARIOAK***

*BADESAk bere ondasunen zerrenda eguneratua aurkeztuko dio Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari urtean behin.*

*Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko idazkariak urteko txosten bat egingo du, eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen ondarearen kudeaketan indarrean dagoen legeria eta Esparru Hitzarmen honetan eta azpigitura bakoitzaren hitzarmen berezietan finkatutako baldintzak betetzen ote diren ebaluatuko da bertan.*

***NOVENA.- DE LOS INVENTARIOS***

*BADESA presentará anualmente a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena una relación actualizada de sus bienes.*

*El Secretario de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena elaborará un informe anual en el que se evaluará el cumplimiento en la gestión del patrimonio de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena de la legalidad vigente y de las condiciones determinadas en el presente Convenio Marco y en los Convenios particulares de cada infraestructura.*

***LAUGARREN ATALA.- FAKTURAZIOA***

***HAMARGARRENA.-***

*BADESAk faktura egingo dio Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari kudeaketa-aginduan jasotako zerbitzuen prestazioagatik.*

*Sozietateak ekitaldian egin beharreko zerbitzuen fakturazioa onartuko du urte bakoitzean Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak.*

*Fakturazio-proposamena urtekoa izango da, eta aginduzkoak diren txostenak egin beharko dira proposamena Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Batzar Orokorrari aurkeztu aurretik. Hala badagokio, fakturazio-proposamenarekin batera aurkeztuko dira txosten horiek.*

***SECCIÓN CUARTA.- DE LA FACTURACIÓN***

***DÉCIMA.-***

*BADESA facturará a la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, por la prestación de los servicios recogidos en la encomienda de gestión.*

*La Mancomunidad Comarcal de Debabarrena aprobará, anualmente, la facturación por servicios a realizar por la sociedad en dicho ejercicio.*

*La propuesta de facturación será anual, y se someterá, con carácter previo a su presentación a la Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena, a los informes que resulten preceptivos. Dichos informes se acompañarán, en su caso, a la propuesta de facturación.*

***BOSGARREN ATALA.- KONTSORTZIOAREN ETA SOZIETATEAREN ARTEKO HARREMANAK***

***HAMAIKAGARRENA.- BETEBEHAR FORMALAK***

*BADESAk sozietateei buruzko legeria orokorrari jarraituko dio Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen sozietate publiko gisa, eta honako hauek aurkeztu beharko dizkio Mankomunitateari, indarrean dagoen aurrekontu-araudian ezarritako epeetan eta zehaztapenekin:*

*a) Sozietatearen ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak eta Administrazio Kontseiluak onartutako aurreko ekitaldiko urteko kontu ikuskatuak.*

*b) Tokiko merkataritza-sozietateei aplikatu beharreko araudi espezifikoan ezarritako dokumentazioa eta kontuak.*

***SECCIÓN QUINTA.- RELACIONES CONSORCIO-SOCIEDAD***

***UNDÉCIMA.- OBLIGACIONES FORMALES***

*BADESA, además de estar sometida a la legislación general de sociedades, en su calidad de sociedad pública de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena deberá presentar a éste, en los plazos y con las especificaciones establecidas en la normativa presupuestaria vigente:*

*a) Los presupuestos de la sociedad para cada ejercicio, y las cuentas anuales auditadas del ejercicio anterior, aprobadas por el Consejo de Administración.*

*b) La documentación y cuentas establecidas en la normativa específica aplicable a las sociedades mercantiles locales.*

*BADESAk honako betebehar hauek izango ditu:*

*a) Kontabilitatea arlo horretan indarrean dagoen araudira egokitzea. BADESA, sozietate anonimoa den heinean, Merkataritza Kodean eta gainerako merkataritza-legerian ezarritakoari, Kontabilitate Plan Orokorrari, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritza Institutuak hala badagokio ezartzen dituen garapen-arauei eta kasu horretan espezifikoki aplikatu beharreko gainerako legeriari lotuta dago kontabilitate-arloan. Halaber, Estatuko Administrazioko Esku-hartzailetza Nagusiak egiten duen sailkapenaren arabera, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudia aplikatu behar zaio.*

*b) Sozietate publikoaren izaera dela-eta aurreikusitako auditoriak egitea, sozietate anonimoei buruzko legerian aurreikusitakoa aplikatuz egin beharreko beste auditoriak galarazi gabe.*

*Halaber, bederatzigarren estipulazioan aurreikusitako ondasunen inbentarioa eta txostena onarpen-prozesupean jarri beharko ditu urtean behin.*

***HAMABIGARRENA.- KONTRATUETAN NAHITAEZKO EDUKI JAKIN BAT DUTEN KLAUSULAK***

*Oro har, BADESAk esleipendunekin izenpetzen dituen kontratuetan eta betiere dagozkien hitzarmenetan ezarritakoari jarraituz bidezkoa bada, gutxienez honako alderdi hauek jasoko dituzten klausulak txertatu beharko dira:*

*a) BADESAk Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen sozietate mandatariaren izaera duela, haren baliabide propioa eta zerbitzu teknikoa den heinean.*

*BADESA deberá:*

*a) Ajustar la contabilidad a la normativa vigente en la materia. En su calidad de sociedad anónima, BADESA está sujeta en materia contable a lo establecido en el Código de Comercio y en la restante legislación mercantil, al Plan General de Contabilidad y a las normas de desarrollo que, en materia contable, establezca en su caso el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas y la demás legislación que sobre el particular sea específicamente aplicable. Le resulta, también, de aplicación, según la clasificación que realice la IGAE, la normativa de estabilidad presupuestaria.*

*b) Someterse a las auditorias previstas por su carácter de sociedad pública independientemente de las que deba efectuar por aplicación de lo previsto en la legislación de Sociedades Anónimas.*

*Asimismo, deberá someter anualmente a aprobación el inventario de bienes y el informe prevenidos en la estipulación novena.*

***DUODÉCIMA.- CLÁUSULAS DE OBLIGADO CONTENIDO DE LOS CONTRATOS***

*De forma general, en los contratos que BADESA suscriba con los diferentes adjudicatarios, y siempre que resulte pertinente de acuerdo con lo establecido en los correspondientes Convenios, deberán constar cláusulas conteniendo, al menos, los siguientes extremos:*

*a) La condición de BADESA, como sociedad mandataria de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena en su condición de medio propio y servicio técnico del mismo.*

*b) Mandatua egiteko Hitzarmenaren esanbidezko aipamena.*

*c) Kontratuak Estatuko legeria zibilari, merkataritza-legeriari eta legeria prozesalari lotuta egongo direla espresuki aipatzea, eta, era berean, sektore publikoko kontratazioan aplikatu beharreko arauen aipamena.*

***HAMAHIRUGARRENA.- HITZARMEN EDO MANDATU ESPEZIFIKOAK***

*BADESAri egiten zaizkion mandatuak edo aginduak bidezko "hitzarmen/mandatu espezifikoen" bidez bideratuko dira.*

*"Hitzarmen/mandatu espezifikoak" Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateko Batzar Orokorrak eta BADESAko Administrazio Kontseiluak onartu ondoren izenpetuko dira, horretarako beharrezkotzat hartzen diren aldez aurreko txostenak galarazi gabe.*

*"Hitzarmen/mandatu espezifikoek" honako alderdi hauek bildu beharko dituzte gutxienez:*

*a) Mandatuaren xedea, norainokoa eta betetzeko epea.*

*b) BADESAren betebeharrak, mandatuaren xede diren prestazioen zuzendaritzari, ikuskapenari, kontrolari eta harrerari dagokienez.*

*c) Ekonomia eta Finantza Planak mandatuaren kostuaren inguruan egindako aurreikuspenak.*

*d) BADESAk agindu zaizkion obrak eta prestazioak ziurtatzeko dituen betebeharrak.*

*e) Hitzarmen espezifikoa indarrean jartzeko data.*

*Hitzarmenaren aurreikuspenak galarazi gabe, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak ahalmenik handienak izango ditu egindako mandatuen fiskalizazio eta kontrolari eta mandatuei lotutako alderdi guztiei dagokienez.*

*b) Mención expresa del Convenio por el que se efectúa el encargo.*

*c) Mención expresa a que los contratos estarán sujetos a la legislación civil, mercantil y procesal estatal, y a las normas de contratación del sector público que resulten aplicables.*

***DECIMOTERCERA.- CONVENIO O ENCARGOS ESPECÍFICOS***

*Los encargos o encomiendas que se efectúen a BADESA se instrumentarán mediante los correspondientes "Convenios-encargos específicos".*

*Los "Convenios-encargos específicos", serán suscritos una vez que hayan sido previamente aprobados por la Junta General de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena y el Consejo de Administración de BADESA, sin perjuicio de los informes previos que a tal efecto se consideren necesarios.*

*Los "Convenios-encargos específicos" deberán contener al menos los siguientes extremos:*

*a) El objeto, alcance y plazo de ejecución del encargo.*

*b) Las obligaciones de BADESA, en relación con la dirección, inspección, control y recepción de las prestaciones objeto de encargo.*

*c) Las previsiones del Plan Económico Financiero sobre coste previsto del encargo.*

*d) Las obligaciones de BADESA, de aseguramiento de las obras y prestaciones encomendadas.*

*e) La fecha de entrada en vigor del convenio específico.*

*Sin perjuicio de las previsiones del Convenio, la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena dispondrá de las más amplias facultades de fiscalización y control de los encargos realizados y cuantas cuestiones les afecten.*

DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEA

MANCOMUNIDAD COMARCAL DE DEBABARRENA

*Hitzarmen espezifikoa izenpetu ondoren, kudeaketa-agindua betetzeko beharrezkoak diren kontratazioak egingo ditu BADESAk, eta, horretarako, honako arau hauei jarraituko die:*

*a) Aplikatu beharreko Europar Batasuneko zuzentarauak beteko dira.*

*b) Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen aginduak eta tokiko merkataritza-sozietateei aplikatu beharreko beste agindu guztiak beteko dira.*

*c) 30/2007 Legearen 38. artikuluan ("Behin-behineko neurriak") ezarritakoaren ondorioetarako, behin-behineko neurri horiek hartzeko organo eskuduna Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea izango da.*

*d) BADESAk eta Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak eraginpean hartutako interesak behar bezala babesteko bidezkoak diren klausulak txertatuko dira.*

Bigarrena. Hartutako erabakia Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatearen webgune korporatiboan argitaratuko da.

*Una vez suscrito el convenio específico, BADESA procederá a las contrataciones necesarias para la ejecución de la encomienda y a tal efecto se ajustará a las siguientes reglas:*

*a) Se cumplirán las Directivas comunitarias que sean de aplicación.*

*b) Se cumplirán las prescripciones de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público y cualesquiera otras que sean de aplicación a las sociedades mercantiles locales.*

*c) A los efectos de lo establecido en el artículo 38 "Medidas provisionales de la Ley 30/2007" será órgano competente para adoptar, en su caso, tales medidas provisionales la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.*

*d) Se incluirán las cláusulas que resulten pertinentes para la adecuada defensa por BADESA y por la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena de los intereses públicos afectados.*

Segundo. El acuerdo adoptado se publicará en la página web corporativa de la Mancomunidad Comarcal de Debabarrena.